

txinpart

Haurtzaro ikastolako aldizkaria

2008 abendua • 42. zenbakia

www.haurtzaroikastola.net





AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	11
EUSKARAREN TXOKOA	22
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	25
GU ERE KAZETARI	28
NAHASTE BORRASTE	34



2008-09 ikasturteko hau lehen Txinpart alea bada ere, lehen hiruhilabete-koa bukatua dugu. Eskuartean duzuen ale honetan aurkituko duzue garai honetan ikastolako egunerokoaren testigantza: guraso, langile eta ikasleak, bakoitza bere bete beharretik egindakoa. Ilusioa, elkarlana eta gure proiektua aurrera ateratzeko grina ez zaigu falta, hau bistakoa da ikastolaren dinamikan, eta esku artean duzuen ale honetan nabarmena da.

Momentu tristeak ere izan ditugula ezin dugu ahaztu, tristeak ikastola guztiarentzat, baina une honi ere elkarrekin aurre egin diogu, eta aurreantzean ere egiten jarraituko dugu.

Ikasturteko ibilbidearen zati bat jorratua dugu, eta badugu zertan jarraitua.

Gabonak ditugu atarian, atsedeen hartzeko tartea. Une paregabea Txinparten ale interesgarri hau hartu eta patxadaz elkarrekin etxean irakurtzekoa. Gure nahia da guztion gustukoa izatea, eta irakurle berria zaitugun horrentzat ere bai, noski: bide batez, ongi etorria gure proiektura.

Murgildu zaitezte beste aldi batez gure ale honetan, eta une atsegin bat pasa ezazue.

**Haurtzaro Ikastolako ikasle eta langile guztien izenean,
IGARO ITZAZUE EGUNBERRI ZORIONTSUAK!**

EGUBERRI ON ETA URTEBERRI ON!



Urtz

Gure laguna

**Zu joan zinenetik
gure mailan zure hutsunea sumatzen da,
zu joan zinenetik
zeruko izar eder batek argitzen gaitu.**

**Urte latz honek ez zuen horrelako amaierarik merezi,
baina gogoan edukiko ditugu denbora honetan
zure inguruan pasa ditugun momentu goxoak:
Irrifar hura, zure urtebetetze egunean gure oparia jasotzerakoan,
zure irrifar hura bideo jokoetan jolasten genuenean,
ZURE IRRIFAR HURA GU IKUSTEAN
ETA GUREA ZU IKUSTEAN!
ZURE IRRIFAR HURA...**

**Edozergatik berreskuratuko zintuzkegu.
Hala ere, ez zaude hemen, baina gure bihotzetan sentitzen zaitugu.
Eta beti, gure oroitzapenean bada ere, lagun izango zarela jakitea nahi dugu.**





Irteerak eta ekintzak

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HAUR HEZKUNTZA			
HH1	URRIAK 20	MENDIBILGO TXARARA	UDAZKENAZ GOZATZERA
HH1	AZAROAN	IKASTOLA INGURUAN	ETXE BAT NOLA EGITEN DEN IKUSTERA
HH2	URRIAK 3	IBARGAIN BASORA	HOSTOAK BILTZERA
HH2	URRIAK 10	BIDE GORRIRA	ZUHAITZAK BEHATZERA
HH2	URRIAK 16	TXARA BASORA	UDAZKENAZ GOZATZERA
HH2	URRIAK 24	TXILLIDA LEKURA	ARTELANAK EZAGUTZERA
HH3	IRAILAK 22	POSTETXERA	BERTAKO LANA IKUSTERA
HH3	URRIAK 6	GURUTZERA	GAZTAIN BILTZERA
HH3	URRIAK 15	GURUTZERA	BASOAN IBILTZERA
HH3	URRIAK 27	LIBURUTEGIRA	LIBURUEKIN GOZATZERA
LEHEN HEZKUNTZA			
LH 1	IRAILAK 19	DONOSTIAKO ZINEMALDIRA	ZINEMALDIA BIZITZERA
LH 1	IRAILAK 24	LISTORRETA	ELKAR EZAGUTZERA
LH 1	URRIAK 22	LUBERRI	DINOSAURO GARAIA EZAGUTZERA
LH 1	AZAROAK 20	ARRIKUTZ, OÑATI	KOBAZULOA EZAGUTZERA
LH 1	ABENDUAK 17	ZINEMA EUSKARAZ	ZINEAZ GOZATZERA
LH 2	IRAILAK 19	DONOSTIAKO ZINEMALDIRA	ZINEMALDIA BIZITZERA
LH 2	IRAILAK 29	OHIANLEKURA	MAILAKO HARREMANAK SENDOTZERA
LH 2	AZAROAK 28	ITSAS GELARA	GAIA LANTZERA
LH 2	ABENDUAK 17	ZINEMA EUSKARAZ	ZINEAZ GOZATZERA
LH 3	IRAILAK 19	DONOSTIAKO ZINEMALDIRARA	ZINEMALDIA BIZITZERA
LH 3	IRAILAK 26	ARRAGUA, UGALDETXX, ITURRIOTZ AUZOETARA	HERRIKO AUZOAK EZAGUTZERA
LH 3	URRIAK 10	ERGOIEN, GURUTZE AUZOETARA	HERRIA EZAGUTZERA
LH 3	AZAROAK 4	NIESSENERA ZINEMA EUSKARAZ	ZINEMAZ GOZATZERA
LH 3	URRIAK 28-29-30	UDAL LIBURUTEGIRA	UDAL LIBURUTEGIA BISITATZERA
LH 3	URRIAK 30 ETA AZAROAK 6	IKASTOLA	EGIPTORI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZERA IZARREKIN
LH 3	IRAILAK 17	MADALENSORORA	ERREMONTE JAIALDIA IKUSTERA
LH 3	AZAROAK 11	LH 3 ZIKLOKO ERAKUSKETA IKUSTERA	BESTEEN ARTE LANAK IKUSTERA
LH 3-4	IRAILAK 10	KARRIKARA	ZIKLOKO HARREMANAK
LH 4	IRAILAK 19	DONOSTIARA	ZINEMALDIA BIZITZERA
LH 4	URRIAK 10	ERREENTERIA ETA LEZORA	ESKUALDEA EZAGUTZERA
LH 4	URRIAK 20	PASAIARA	ESKUALDEA EZAGUTZERA
LH 4	URRIAK 24	LH 3 ZIKLOKO ERAKUSKETA IKUSTERA	BESTEEN ARTE LANAK IKUSTERA
LH 4	AZAROAK 13	DONOSTIARA	SAVE THE EARTH ANTZERKIA IKUSTERA



LH 5	URRIAK 31	PASAIKO PLANETARIUMA	LANDUTAKO GAIAREKIN LOKERA
LH 5	AZAROAK 29	MUSIKA TXOKORA	EUSKAL HERRIKO MUSIKA TRESNAK EZAGUTZERA
LH 5	ABENDUAK 5	TOLOSARA	TXONTXONGILO EMANALDIRA
LH 6	IRAILAK-22	ERGOIEN ALDERA	HARREMANAK SENDOTZERA
LH 6	URRIAK 7	LUBERRIRA	TXANELA: EUSKAL HERRIAREN SORRERA GEOLOGIKOA
LH 6	URRIAK 15	TXILLIDA-LEKU-RA	PLASTIKA: E. CHILLIDAREN MUSEOA ETA ESKULTURAK IKUSTERA, DISFRUTATZERA...
LH 6	ABENDUAK 5	NAZIOARTEKO TXONTXONGILO JAILDIARA	NAZIOARTEKO KULTUR EKINTZA BATEAN PARTE HARTZERA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			
1. ZIKLOA	IRAILAK 19	ARRASKUELARRE- KARRIKA	IKASLE ETA IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK SENDOTZERA
2. ZIKLOA	IRAILAK 19	PAGOELARRE-ERGOIEN	IKASLE ETA IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK SENDOTZERA
DBH 1	IRAILAK 8-15	IKASTOLAN	TAILERRA: PAREKIDETASUNA
DBH 1	AZAROAK 6	MIRAMONGO ZIENTZIA GUNERA (DONOSTIA)	GIZARTE ETA NATUR ARLOKO GAIK SAKONTZERA
DBH 2	AZAROAK 6	LEGAZPIKO MIRANDAOLA- ZERAINA	TEKNOLOGIA ETA GIZARTEKO GAIKIN UZTARTZERA
DBH 2	ABENDUAK 12	MUSIKA TXOKORA	MUSIKA TRESNAK EZAGUTZERA
1. ZIKLOA	AZAROAK 20	OIARTZUNGO UDALETXERA	HITZALDIA: HIESA
1. ZIKLOA	ABENDUAK 5	IKASTOLAN	EMANALDIA: ZIGOR DZ D-J
DBH 3	IRAILAK 9-16	IKASTOLAN	TAILERRA: PAREKIDETASUNA
DBH 3	URRIAK 13	MIRAMONGO ZIENTZIA GUNERA	BERDE-BERDE PROIEKTUAREN AURKEZPENA. AURREKO URTEAN EGINDAKO LANAREN ONESPENA JASOTZERA ETA PROIEKTU BERRIAK EZAGUTZERA
DBH 3	URRIAK 14	ERRENTERRIARA: HERRI KIROL TOPAKETAK	ESKUALDEKOEKIN HARREMANAK IZATERA
DBH 3	AZAROAK 3	IKASTOLAN	EUSKARA: MOTIBAZIO SAIOAK
DBH 2-3-4	AZAROAK 14	DONOSTIAKO ARTZAIN ONAREN PLAZAKO KARPARA	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ASTEAN PARTE HARTZERA
DBH 3B	ABENDUAK 5	BILLABONA: HERRI KIROL TOPAKETAK FINALA	GIPUZKOAKO IKASTOLEKIN HARREMANTZERA
2. ZIKLOA	IRAILAK 26	IKASTOLAN	TOPAKETA: NAROA AGIRRE KIROLARIA
2. ZIKLOA	AZAROAK 20	OIARTZUNGO UDALETXERA	HITZALDIA: HIESA
2. ZIKLOA	ABENDUAK 5	IKASTOLAN	EMANALDIA: ZIGOR DZ D-J
DBH 4	URRIAK 2-3	BIDASOA IBAIRA	PIRAGUAKO IKASTAROA EGITERA
DBH 4	URRIAK 22-28	IKASTOLAN	EUSKARA: MOTIBAZIO SAIOAK
DBH 4	ABENDUAK 1	OIARTZUNGO UDALETXERA	HITZALDIA: AITA MENDIBURUREN JAIOTZAREN HIRUGARREN MENDEURRENA
DBH 4	ABENDUAK 12	"THI IS ENGLAND" FILMA IKUSTERA	ETIKAKO ARLOAN GAIK SAKONTZERA



BATZAR NAGUSIA 2008-09

Pasa den abenduaren 12an ospatu zen Ikastolan Urteko Ohiko Batzar Nagusia. Gai hauetaz osatutako txostena ikastolako familia guztiek jaso zuten.

lazko esperientzia arrakastatsua izan zela eta, aurtengo ere Batzar Nagusian alde bereko itzulpena erabili da guraso erdaldunen parte hartzea bultzatzeko.

► Bazkideen ordezkaritza, AURKEZTU ETA ONETSI DIRA

- Kontseilu Errektoreko ordezkari berrien izendapena

► AURKEZTU ETA ONETSI DIRA

- Aurreko Batzarraren akta
- 2007/08 ikasturteko gestio txostena eta 2008/09ko gestio plana
- 2007/08 ikasturteko kontuak, eta 2008/09 ikasturteko aurrekontua

► URTEKO GAIAK

- **IKASTOLAKO PLAN ESTRATEGIKOA:** 2008/09 ikasturteko gai garrantzitsua dela aipatu da hau, datozen lau ikasturteetarako egitasmoak plan horren arabera finkatuko dira.
- **UDALAREKIN HARREMANAK:** Udalaren eta ikastolaren arteko hitzarmen berriaren berri eman da. Puntu honetan aurkeztu dira baita ere Oartzungo Hirigintzarako Ordezko Arauek proposamenari Ikastolak egin dion helegitea.
- **IKASTOLEN VI. BATZAR NAZIONALA.** Ikasturte honen bukaeran, 2009ko ekainean, ikastolen VI. Batzar nazionala egingo da. *Ikastola. Orain eta gero* eta *Euskal curriculum* dokumentuak aztertuko dira.





Eskola Agenda 21

Aurten ere, mugituko gara



Aurreko ikasturtean, Eskola Agenda 21 proiektuaren barruan MUGIKORTASUNA landu genuen. Gaia hain zabala izanik, 2008/2009 ikasturtean ere, mugikortasun gaia lantzen jarraitzea erabaki genuen.

Gogoan izango duzue iaz hainbat ekintza egin izana; hala nola

- herriaren diagnostikoa,
- arrisku guneen detekzioa,
- bide seguruen diseinua,
- oinez ikastetxera ekimena,
- OINBUSen antolaketa, etab.

Aurtengo ikasturtean, ildo beretik jarraitu eta sakontzeko asmoz, eskolaren ibilbidean zera sartzea pentsatu da. Alde batetik, HH nahiz LH-ko ikasleekin **mugikortasuna eta haurren autonomia** lantzea eta, bestalde, DBHko ikasleek autonomia maila handiagoa duten heinean, Oiarzungo herrian **bizikletaz** mugitzeko duten aukera eta hobekuntzak aztertzea.

HH eta LH-ko ikasleekin: haurren autonomia

Kotxeek, hasiera batean, pertsona helduei independentzia eta autonomia maila gehitu zieten, baina, egun, kaleen espazio gehiena kotxeen esku dago eta horrek oinezkoentzat arriskua dakar eta oinezkoen askatasuna asko mugatzen du.

Arazo hau ekiditeko orain arte haurrak beti "eskutik eramatera" jo dugu. Aldiro toki kontrolatueta izan nahi ditugu, eskolako ateraino eramaten ditugu, eskolatik atera eta eskolaz kanpoko ekintzetara eramaten ditugu, gero eta denbora gehiago pasatzen dute etxean jolastan... Honek guztiak ez du batere

laguntzen haurraren autonomia lantzen. Haurrak poliki-poliki bere kabuz mugitzen ikasi behar du, sortzen zaizkion desafioen aurrean erantzunak ematen ikasi behar du. Mugak eta arauak jarri beharko dizkio-gu, jakina, lekuzkoak (nondik joan, edo noraino joan), denborazkoak (noiz etorri, orduak..), eta abar, baina, poliki-poliki, bere autonomia lortzen joan behar du.

Haurrek autonomia lortzeko gurasoek dituzten beldurrak baztertu behar ditugu. Askotan, gurasoak, telebista eta irratietan entzundako albisteekin izutzen baitira, nahiz eta gertaerak urrutikoak izan.

Ikasturte honetan gurasoekin dugun muga hori ere nolabait gaingitu beharko dugu.

Haurrak beren kabuz mugitzen hasten badira, asko lortuko dugu. Hauxe bideratuko dugu:

1. Haurraren autonomia lantzea.
2. Osasuna eta ohitura onak bultzatzea.
3. Lagunekin jolastan egoteko uneak izatea eta hauetaz gozatzea.
4. Arduraz jokatzeko.

DBHko ikasleek: bizikletaz

Herrian bizikletaz mugitzeko dugun aukeren azterketa egingo dugu:

1. Bide gorrien sarea.
2. Bide gorrien egoera eta bide gorrien erabilera.
3. Txirrindaz ibiltzeko segurtasun arauak.
4. Ikastolako logistika: aparkalekua, zainketa, oinezkoak eta txirrindulariak elkarrekin bizitzeko kultura...





Haurtzaro mendi irteerak 2008/09

HAURTZARO MENDI TALDEA

Haurtzaro Mendi Taldeak 2008/2009 ikasturterako eskaintza polita egiten dizue. Zortzi irteera paregabe prestatu ditugu, mendia gus-tuko duzuenek gogatzeko eta pereza gehiago ematen dizuenei guregana animatzeko.

Zortzi irteeretatik hiru Oiartzungo mendien barrena izango dira. 2007/2008 ikasturtean Oiartzungo mugaz mugako birari ekin genion. Haurtzarotik atera eta Ugaldetxotik Iturriotza iritsi ginen lehengo irteeran. Bigarrenean, Iturriotzik Karrikara eta hirugarrenarekin Karrikatik Aranora heldu ginen. 2008/2009 ikasturtean bira osatzeko eta bukatzeko beste hiru irteera proposatzen ditugu:

- Urriaren 26an, Aranotik Biandizerako tartea egin dugu. Irteera erraztu nahian, justu alderantziz egin genuen, eta egun zoragarria goatzeko aukera izan genuen. Paraje ederretan ibili ginen: baso paregabeak, uraren indarreko bi zentral elektriko ondotik pasa ginen, uraren kanalen ertzetik ibili ginen, ur jauziak ikusi genituen...
- Abenduaren 14an, Negu Jaiarekin batera, bigarren irteera egingo dugu. Biandiztik Pikoketara joango gara. Biandizko kaskoan ibili ondoren, Aiako Harriko magaletik pasako gara. Oiartzuar guztiak ezagutu

beharko genituzkeen mendiak ezagutzeko irteera. Ohi bezala, eta nahi duenarentzat, irteera Karrikan bazkari batekin bukatzen dugu. Garaian gaude eta lagun artean babarrun jatea prestatuko dugu.

- Otsailaren 15ean, Oiartzungo biraren azken irteera izango dugu: Pikoketatik Haurtzarora.

Baina Oiartzungo barruko irteeraz gain prestatu ditugu beste batzuk:

- **ZORROZPE-ERLO-AZPEITIA:** Azaroko ibilbidea Azkoitiko Madarixa auzoa, Mendaro, Lastur eta Itziarko ingurune artean dagoen Zorrozpeko paraje ederretik abiatzen da. Hasieran basotik, gero zelaie-tatik barrena eta bukatzeko harri artetik, Erlo mendira (1.026 m) igoko gara. Jaitsieran oso ondo konserbatzen den Azketako Neberietik pasako gara ondoren Azpeitiko herrira jaitsiko gara ikuspegi handiko bide batetik.
- **SOMPORT:** Urtarrilaren 24an urtero zita dugu skiekin. Egun osoko irteera iraupeneko ski ikastaroa jasotzeko eta horretan trebatzeko.
- **ERGAKO TRINITATEA:** Martxoaren 15ean, Irurtzun ondoan dagoen Aizkorbe herritik bide maldatsu batetik Ergako Trinitatearen ermitaraino igoko gara. Ikuspegi zoragarria duten ermita eta aterpea utzi


Urriaren 26an

Añarbe-Eskas / Oiartzungo biraren 4. etapa




Azaroaren 16an

Zorrozpe-Erlo (1.026 m.)



Abenduaren 14an

Negu Jaia Eskas-Pikoketa
Oiartzungo biraren 5. etapa



Urtarrilaren 24an

Sky-Ikastaroa





eta ertzetik Ergako gailurreraino igoko gara minutu gutxitan. Iparraldetik malda behera abiatuko gara basotik barrena bide zaharrak bilatzen eta azkenean Donostiako errepidera iritsiko gara Bi aizpeko paretatik gertu.

• **TXURRUKO PUNTA:** Apirilaren 26an, Otzaurtetik abiatuta pagadi baten barrena Aizkorri eta Aratzeko ikuspegi ederra duen lepo garbi batera iritsiko gara. Belardi artean Txurruko puntako gailur zabal eta garbira igoko gara ordu laurden batean. Ondoren Naparitzeko haitzaren aldera jaitsiko gara eta berriz basotik barrena Etxegarate eta Otzaurteko bidegurutzean bukatuko dugu.

• **LEITZARAN TXIRRINDAZ:** ikasturteko azken proposamena maiatzaren 17rako da. Andoaingo apeaderoan txirrinda gainean jarrita Plazaolako trenbidearen arrastoaren bila joango gara. Tunel txiki pare bat pasa ondoren zubi handi bat eta jarraian tunel luze bat igaroko dugu. Zuzenean Leitzaran bailaran sartuko gara, leku eta paraje desberdinak lagun izango dugula. Bidea jarraituz makinetxe, ur jauzi, presa eta tunelak pasa ondoren 10 kilometrotan Ollokiko geltoki zaharrera iritsiko gara; gutxi gorabehera bailara erdian dago. Hemendik, denborak aukera ematen

badigu, Ameraun makinetxeraino jarraituko dugu edo bestela berriz Andoaín aldera bideratuko gara, oraingoan malda behera, hasierako leku berera iristeko.

Ikastolaren Eguneko ginkana ere Haurtzaro Mendi Taldeak prestatzen du. Ikasleek benetan gozatu egiten dute prestatzen diogun ibilbidearekin: antzinako jolasak, bizikleta, errekan, tirolina. Prestaketa honek gurasoen eta langileen laguntza ezinbestekoa da. Batetik, parte hartzaileen ume kopurua urtetik urtera goraka doalako; bestetik ginkana egiteko hartzen dugun eremua zabala delako, eta, azkenean, ekitaldi ugari prestatzen ditugulako. Hau dena ondo joan dadin jende asko behar dugu. Orain urruti ikusten dugu, baina unea iristen denean gogoratu oraingo gogoeta honetaz eta Mendi Taldeko arduradunengana hurbil zaitezte. Ongietorriak izango zarete guztiok.

Bukatzeko ezin ahaztu gure ekimenaren babesle den Errenteriako Sherpa Mendiko Tresnak denda. Irteera bakoitzeko opari sorta bat eskaintzen digu. Irteera amaieran zozketa bidez banatzen ditugu opariok ikasleentzako.

Hemen duzue gure eskaintza. Ea zuen gustukoa den eta aipatu ditugun igande goiz horietan elkar ikusten dugun!

OHARRAK:

- Irteeretara aldatzeko arropa eramatea komenigarria da.
- Joaten diren ikasleentzako Sherpa Mendiko Tresnak dendak eskaintzen dizkigun opariak zozkatuko dira.
- Mendi Taldearen urteko irteeren informazioa eta argazkiak ikastolako web orrian ditugu: www.haurtzaroikastola.net.

Otsailaren 15ean

Pikoketa-Ikastola
Oizartzungo biraren 6. etapa



Martxoaren 15ean

Ergako Trinitatea (1.094 m.)



Apirilaren 26an

Txurruko punta (998 m.)



Maiatzaren 17an

Leitzaran txirrindaz





Basorako bidean

Gaur basorantz abiatzea erabaki dugu. Ikastolako frontoian pilota-partida ikusi eta oiloei egunon esan diegu, Aiako Harrira ere begiratu dugu ea lainorik ageri den, baina ez, primerako eguraldia dugu.

Bidean kotxeren batekin gurutzatu gara baina aski ederki dakizue baztertzen. Arriskua gainditurik, batzuk korrika batean abiatu zarete maldan behera. Beste batzuk ordea, patxadaz, belarrak, intxaurrak, makilak... zerekin espermentatu topatu duzue, baina zuek iritsi artean, hantxe egon dira beste lagunak zain, zuen zain, aurrez adostutako tokian.

Basorako bideari jarraika, "attona" ikusi dugu banku batean eserita. Denek "attona" zela zenioten baina zeinen "attona" ote?. Esku artean zuen makilaz kontu-kontari jardun eta gehienek musu batez agurtu duzue. Adioooo!

Aurreraxeago topatu dugun Elorri-zuria ere ez zaigu oharkabea pasa izan, zoragarri baitzegoen pottota gorritz beterik!! Pazientziaz, eskua ttiki horiek trebe aritu dira fruituak biltzen eta poltsikoak betetzen.

Basorako bideari jarraika berriz ere, azken aldapa igo ahala, a zer sorpresa!. Txoko berri bat!! Idi probak egiten omen dira hemen, baina non daude idiak?

Lurra oso erakargarri suertatu zaizue. Bertako harri leun dotoreak hartzeko saiakerarik egin duzue baina ezin, lurrari ederki eusten diote eta! Eskailera ugari daude, handiak, txikiak, aldapak, udazken kolorez jantzitako zuhaitzak, zelaia... Basoa ere hor dugu gure aurrean, baita pizina ere!

Primeran egokitzen da txoko berria hau zuen gaitasun, behar eta interes ezberdinetara. Behin eta berriz eskaileretan gora eta behera, lehenik 2 eta gero 8, txikiak nahiz haundiak... Batzuren ekintzak besteen ideia bihurtuta, elkarren atzetik eskailerak igo eta maldatik jeisten zirkuito mudukoa egin duzue. Karrerak ere bai...

Belarretan ere gustura aritu zarete hostoak... biltzen, baita bertan bezperako euria dela eta ederki lokaztu ere! Putzuetan garbitzeko, bustitzeko aukerarik ere ez duzue galdu. Egarri geratu zaretenik ere ezin esan, azkar probatu baituzue iturriko ura

Bueltatu aurretik, harriekin jolasteko aukera paregabea izan duzue. Harriak jaurtitzen, azoka antolatuz harriak, tomate, letxuga... bihurtu dituzue eta konturatu orduko, ai ene! Fermin gure sukaldaria heldu zaigu bazkariarekin!!!

Izugarri gustatu zaigu txoko berria hau, hurrengo batean denbora luzeagoz gozatzeko gelatik goiz aterako gara ipuina eta txotxongiloak hemen ikusiko ditugu, ados? Esan eta egin, motxilan sartu ditugu hurrengo baterako.





► HAUR HEZKUNTZA 1



AIZUE, 3 URTEKOAK HEMEN GAUDELA!!

PRIMERAN PASATZEN ARI GARA, TXO!

IKASTOLAN OSO GUSTURA GAUDE ORAIN, BAINA BELDUR PIXKA BAT ERE PASA GENUEN HASIERAN, E! DENA BERRIA ZEN GURETZAT!

ORAIN, BERRIZ, LAGUN PILA DUGU ETA GAUZA ASKO EGITEN DITUGU: GELAKO JOSTAILU GUZTIAK PROBATU DITUGU, MARRAZKIAK EGIN, KANPOAN TRIZIKLOAN IBILI GARA, TXIRRISTRAN, PARKEAN, SALTOGELAN JOLASTU...

GUTAKO GEHIENEK JANTOKI ERRALDOIA ETA SIES-
TA EGITEKO TXOKOA ERE EZAGUTU DITUGU. JANA-
RIA GOXOA DA, ETA SIESTA GOZOA EGITEN DUGU.

ARROXALIK ESATEN DUEN BEZALA: **"BAI POLITA
DELA GURE IKASTOLA!"**



► HAUR HEZKUNTZA 2



HAURRAK BEREZKO DUEN JAKIN-MINAK BERE
INGURUAREKIN EKINTZAN ARITZEA BULTZATZEN
DU ETA JOLASAREN BIDEZ INGURUAREKIN
HARREMANETAN JARTZEN DA. UDAZKENAREN
GAIA ULERTZEKO ZER HOBETO BASORA TXANGO
BAT EGITEA BAINO?





► HAUR HEZKUNTZA 3

GARRAIO GAIA LANTZEN ARITU GARA. ASKO HITZ EGIN DUGU HONI BURUZ: OPORRETARA NORA ETA NOLA JOATEN GAREN, ZE GARRAIO MOTA ERABILTZEN DUGUN HORRETARAKO, NONDIK IBILTZEN DIREN; LURREAN, AIREAN EDOTA URETAN, NOLA ALDATU DIREN ANTZINATIK HONA...



HONEN ONDOREN LANARI EGIN GENION ETA "INGENIERI" HOBERENEN MODURA, KORTXOAK, PLASTILINA, PAPERA, TXOTXAK, TENPERA... ERABILIZ, HEGAZKINAK, TRENAK, AUTOAK, ITSASONTZIAK... EGIN GENITUEN. HONEKIN GUZTIAREKIN MAKETA DOTORE BATZUK OSATU GENITUEN, ETA AIREPORTUA, TREN GELTOKIA, UHARTEA... JARRI GENITUEN BERTAN.

IKUSI ZEIN POLITAK GERATU ZITZAIZKIGUN!



► LEHEN HEZKUNTZA 1

lupi lehenengo mailan gaudel! Ikasturte honetan Fermin eta Maddalen ezagutu ditugu eta espazio eta denboran zehar ibiltzeko balio duen makina bat. Beraiekin batera denboraren makinan historian zehar bidaiatzen hasi gara.

Lehenengo bidaian dinosauroen garaia joan gara eta bertan dinosauroen inguruko gauzak ikusi eta ikasi ditugu.

Tiranosaurus, Diplodocus eta gainerako "muskertxo-en" garaitik, lehen gizakien garaira abiatu gara gure arbasoak nola bizi ziren ikusi eta ikasteko asmoz Arrikruzteko kobazuloetara joan gara.





▶ LEHEN HEZKUNTZA 2



LH 2. mailako ikasleak handitzen joan gara txiki jaio ondoren. Jopu eta noble izan gara eta gure Oiartzun maitearen sorrera nondik norakoa izan den ikasi dugu. Orain itsasoan barrena sartuko gara eta, nork daki zer arrantzatu edo aurkituko ote dugun!



▶ LEHEN HEZKUNTZA 3

3. mailan gure herriari buruz asko ikasi dugu hiru hilabete honetan. Liburuaz gain izan dugu istorio eta pasadizuak kontatu dizkigun guraso bat. Urrian Gurutzera joan ginen, hara iritsitakoan Felix Galdos prestu agertu zen Gurutzeko Harkaitzeko bunkerrak erakustera. Antortxak hartu eta hara joan ginen, bertako armarrria ere erakutsi zigun. Barruan ibili ondoren bere txikitako kontuak kontari ere gustora asko egon ginen.

Orain, berriz, Egipto gaia lantzen ari gara. Nilo ibaia dela munduko luzeena ikasi dugu, Izar Lekuona ere izan dugu gelan bere Egiptoko bidaiari buruzko pasarteak, argazkiak eta istorioak kontatuz.

Eskerrik asko Felix eta Izar zuen denbora eta kontakizunengatik.





► LEHEN HEZKUNTZA 4

LH 4. mailakoek gure eskualdearen gaia lantzen aritu ondoren motxila hartu eta ibilaldira hauek egin genituen:

· Diartzun ibaia jarraituz Ikastolatik Erreteriarara eta handik Lezora joan ginen, bertako eraikuntza aipagarriak ikusiaz.

Pasaiaiko badia aztertu genuen txalupan ibilaldi zoragarri bat eginaz. A ze olatuak itsas zabalera irten ginenean.

Gustura errepikatuko genuke!



► LEHEN HEZKUNTZA 5



Izarren hautsa?

Gu LH 5. mailako ikasleak gara eta ikasturte honetan Txanelako lehenengo gaiarekin unibertsoa landu dugu. Asko ikasi dugu. Pasaiaiko planetariumean egon ginen eta gelan ikasitakoaz aparte konstelazio eta izarrei buruzko gauza berri asko kontatu zizkigun bertako arduradunak. Beste batzuen artean abenduko hilabetearen lurra, Artizarra eta Saturno planetak ikusterik izango genuela esan zigun.

Plastikan hainbat planeta egin ditugu eta oso ongi gelditu zaizkigu. Gainera tenpera eta argizariarekin zerua margotu dugu eta collage teknika erabili dugu unibertsoa irudikatzeko. Informatikan gai honi buruz bideo asko ikusi ditugu eta ondoren ordenagailuan bertan ariketa mordoxka egin ditugu. Gai hau asko gustatu zaigu. Ikasi dugu eta ongi pasa dugu.





► LEHEN HEZKUNTZA 6

EUSKAL ESKULTURGILEAK hurbiletik ezagutu,



eskulturak egin eta “ARTE GALERIA” bat antolatu



eta GURE arteko HARREMANAK indartu ditugu eta gozatu dugu.



“Nahikoa da!” film labur berria

Maixabel Etxeberria, Nahia Aguado, Gexan Esteban eta Ane Gainza

Gaur egun, zoritxarrez, gertatzen ari diren tratatu txarren berri islatzen duen egoera tragikoa salatu nahian sortu dugu honako film laburra DBH 4. mailako bideogintza arloko lau ikaslek.

Familia baten barruan gizonezkoaren jokabidea eta bere eraginak azaldu ditugu. Gure helburua da ikusleek emakumearen egoera eta ingurukoek jasotako ondorioak ezagutu, aztertu, baloratu eta kritikatzeari.

IDEIA, GIDOIA, GRABAKETAK eta EDITATZEA guk geuk, ikasleok, egin dugu.





Fatuma Isasa eta Araitz Iparragirre

Ikastolako lehen argazki lehiaketako irabazleak

Ikasturte hasieran, ikastolako DBHko ikasleekin urtero egin ohi dugu mendi buelta, harremanak sendotzeko eta indar berritzeko. Aurten, udazken giroak gure natura kolore bereziz janzten duela eta, ikasleen arteko argazki lehiaketa antolatu dugu ikastolan lehenengo aldiz.

Parte hartze arrakastatsua izan da, kantitatez eta kalitatez. DBHko lehen zikloko irabazleak, Fatuma Isasaren argazkia izan da. Accesit-a Iñigo Ruiz de Azuak jaso du. Eta 2. ziklokoa, Araitz Iparragirre. Zorionak hiru artista berri horiei.



Fatuma Isasa



Araitz Iparragirre



Iñigo Ruiz de Azua

Haurtzaron egindako film laburra Bilboko zinemetan

Joan den ikasturtean Eusko Jaurlaritzak Haurtzaro ikastolako DBH 4. mailako ikasleek egindako lan bat saritu zuen. Horrela, Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Kulturartekotasuna nire auzoan" izeneko II. Bideo-lehiaketan Haurtzaro Ikastolako DBH 4. mailako ikasleek lehen saria eskuratu zuten.

Saritutako bideo hori hilabete honetan, azaroaren 9an, Bilboko Multicinesetan eman zuten II. Zinema eta inmigrazio astearen barruan. Hori zela eta, bideoa egileetako lau ikasle inguratu ziren Bilboko zinema horietara eta bertan aurkeztu zuten egindako lana. Nabil Selma, Rafa Vega, Julen Iturain, Gorka Vicente, Jhonatan Burga eta Mikel Garmendia izan ziren eguneko protagonistak igande horretan.





Urik gabeko hondartza

Iker Irigorri / DBH 4

Nik badut oroitzapen bat,
nik badut gustuko toki bat,
bidaia batean ezagutu dut.

Nik gustukoa dut
nire etxeko leihotik ikusten ditudan
zelai eta mendiak.

Nik ere gustukoa dut
bidaiaiko paisaia guztiz ezberdina,
oso lehorra,
marroi kolorekoa,
hondartza handi bat
itsaso gabekoa gogora ekartzen zidan
lehenengo aldiz ikusi nuenean.

Jende gutxi bizi da,
ur gutxi daukate.
Hondarra dago edonon,
dunak izeneko mendiak,
palmerak izeneko zuhaitzak
eta gameluak izeneko zaldiak.

Bere izena basamortua da.
Hango bero jasan ezina,
hango bizimodua,
hango ohiturak,
guztiz ezberdinak.

Tearen usaina edonon,
“haimak” izeneko etxeak,
janariaren zapore berezia.

Oso ezberdina izanda ere
gustatu zitzaidan.

Gaueko izarrak,
hemengoak baino
distiratsuagoak dira.

Egunez bero
gauean hotz.

Hau da, bi aldiz ezagutu dudana tokia.
Hau da, bi aldiz gustatu zaidana tokia.



Azken erabakia

Estitxu Cruz / DBH 4

...Nahikoa da... gelditu egin behar dut...

...Egin dezaket...

Behingoz honekin amaituko dut...

Bat... bi... eta...

Salto

...

4. pisua

"Asteazkena, 1966ko maiatzaren 20a

Klan, klan, klan...

Gero eta ozenago, gero eta gertuago sumatzen nuen eskaileren hotsa. Bat-batean atearen txirri hotsa entzun nuen zirrikitu batetik argi-izpi xume bati sarrera ematen. Burua biratu eta bi irribarre niri begira. Ezer esatea lortu baino lehen...

-ZORIONAK JURGI!!

Oraindik ez nintzen ohartu ere egin gaur nire urtebetetze eguna zenik.

Inoiz baino lehenago eta azkarrago jaiki nintzen ohetik. Korrika batean sukaldara jaitsi eta urtero opariak egoten ziren txokora begiratu nuen. Baina deus ez. Aurten hutsa zegoen. Ez oparirik, ez ezer.

Ikastola eguna zenez gertatutakoari kasu zipitzik egin gabe gosaldtu, jantzi eta ikastolarantz abiatzeko prestatu nintzen. Etxeko atea zabaldu eta azken eskaileran zilarrezko paper dizdiratsu batez bildutako izugarritzko pake-tea zegoen. Inoiz ikusi nuen handiena.

Atzera begiratu eta hantxe zeuden aita eta ama, oraindik irribarre aurpegian marraztua zutela, niri begira.

Motxila airera bota eta ohartzerako opari-papera puskatzen ari nintzen ilusioz itota.

-Alaaa...

Nire ametsetako txirrindua. Nire lehenengo txirrindua zen eta hantxe zegoen dotore-dotore, 4 gurpilekin, bere txirrina eta guzti.

Ikastolan, altuera txikiko, ile ilun eta kizkurra zuen eta bere betaurreko biribilen atzean gordetzen zen izaki bakartia izateari utzi nion eta haur guztien arreata puntua izan nintzen momenturo.

Arratsalde horretantxe estreinatu nuen txirrindua, eta, egia esateko oso azkar ikasi nuen oreka mantentzen. Baina lortu bitartean... hori da hori ipurdiko piloa, hori da hori tirta pila gastatu nuena...

Oraindik gogoan ditut ubeldurak. Pentsatze hutsak belau-neko mina ematen dit.

Malko bat...

Ilusio malko bat...

...

3. pisua

"Larunbata, 1976ko uztailaren 6a

Jada 15 urte, handia sentitzen nintzen. Ikastolari edo hobeto esanda *hautzaindegia* bizkarra emateko prest nengoen.

Uda hasiera zen eta denak pozez blai ginen.

Udako egun arrunt baten gisa hasi zen guztia. Oporretako errutina txotxoloa jarraituz. Arratsaldea ere lagunekin pasa nuen, hondartzan. Toailak betiko lekuan jarri genituen, bikiniaren goiko zatia jantzi gabe izaten zuten neska batzuen ondoan, noizbehinka gure begiei gozoki batez gozatzeko aukera emateko.

Lagunak ondoko herrian diskoteka bat ireki berri zutela eta, ez ziren isildu arratsalde osoan. Gauen bertara joateko plana egin genuen azkenean.

Iritsi orduko foku koloretsuen olatu batek harrapatu genituen. Gaztelu batera sartzen ari ginela zirudien. Gazteluko atezain ziruditen bi gizon baitzeuden serio-serio atean. Erdi-erdian dantzalekua zegoen, eskuinetara taberna goraino beteta. Ezkerretara esertzeko 2-4 aulki zahar komun ondoan. Ez zen inork amesten duen paradisu horietakoa, baina guretzat ez zegoen batere gaizki. Gainera, giro ezinobea zegoen han: musika zaparrada, neska panpoxa piloa, alkohola zoko guztietan...

Edan eta edan ibili ginen, azkenean buruak bueltak ematen zizkigun arte... Gure lehenengo mozkorraldia.

Uste dut gau hura buruan itsatsita geratu zitzaigula. Egia esan, nola ez zitzaigun ba geratuko, gau osoan ondoan izan genuen neska piloarekin? Han ibili ginen denak babero baten beharrean, lerdea zerigula, begiak aurpegitik kanpo dantzan...

...zoragarria.

Gogoratze hutsak burua biraka jartzen dit."

Irribarre bat...

Euforia irribarre bat...

...

2. pisua

"Igandea, 1978ko abenduaren 23a

...tlin, tlin, tlin...

Azken asteetako melodia berak esnatu ninduen orduan ere. Begiak ireki bezain pronto ikusi nituen kanpoko euri tantolak nire leihoko kristalean dantzan, beraien musika monotonoaz lagundurik. Ohetik jaiki eta... *uuff...* oheko manten goxotasunak babesik gabe utzi ninduen. Ez nuen segundo bat bera ere galdu duela urte batzuk amona Kontxesik oparitutako jertse xelebrea janzten. Gorroto nuen jertse hura, baina etxean egoteko... ez zetorkidan batere gaizki.

Goiz osoa etxean pasa nuenez, lagunekin egoteko izugarritzko gogoa nuen arratsaldean. Eskerrak lagunetako batek arratsaldea bere etxean pasatzera gonbidatu genituen, bestela izotz-kubo bihurtuta itzuliko ginen etxera.



Zazpi lagun elkartu ginen, lau mutil eta hiru neska. A zer nolako irribarre marraztu zitzaidana neska horiek arratsaldea gurekin pasako zutela jakitean. Izan ere, horietako bat aspalditik zebilen niri burua jaten.

Pelikula bat ikusiz hasi genuen arratsalde hotza. Beno, egia esan "hasi zuten", nire begiak telebista ez zen beste norabait begira baitzeuden.

Orduan hasi zen dena.

Lehenik begiradak. Gure begiek elkarren atentzioa bilatzen zuten. Elkarri begira geundela ohartzean, irribarre lerdan bat aurpegi lotsagorritu batean itsatsia.

Halako batean...

-Komunera noa -esan zuen neskak, niri begi bat kliskatuz.

-Baso bat ur hartzera noa -esan nuen nik ere bere mezua erantzunaz.

Besteek ikusiko ez gintuztela sumatu bezain laster nire besoak bere gerriaren inguruan korapilatu ziren. Berak ere berdin egin zuen.

Gonbidatuen gelan sartu ginen, atea itxia utziz.

Itsasoak ura behar duen bezala, gure ezpaineak elkarren berotasuna behar zuten. Aurpegiak pixkanaka gerturatzeko hasi ginen, ezpaineak elkarren gainean pausatu ziren arte. Mihiak bals batean bezala dantzan hasi zitzaizkigun elkarrekin.

Denborak ihes egiten zigun. Jada ez ginen jantziak, ez ginen zutik, gure gorputzek elkarren beharra zuten, elkar desiratzen zuten.

Musu eta laztanetatik hasi eta jakina da nola joan zen gai-nontzekoa.

Bion lehen aldia. Hura izan zen nire bizitzako momenturik onena. Ahaztezina.

Pentsatzen jartze hutsak kilimak eragiten dizkit sabelean." *Dardara bat...*

Plazer dardara bat...

...

1. pisua

"Asteartea, 2004ko martxoaren 13a (atzo)

Jada heldua nintzen. 44 urteko gizona. Altueraz ez nintzen txikitan nintzena bezain baxua, orain ere adineko beste gizonak baino altuagoa nintzen. Goialdea zuritzen hasia zitzaidan dagoeneko eta ez nuen duela gutxi bezain-besteke ile luzea. Baina horrelako txikikeriak ez zidaten batere axola, izan ere, zoriontsu nintzen, emaztea eta alaba bat nuen, baita lan propioa ere inguruko enpresa zaharretako batean.

...

"Martes y trece" delako egun horietako bat zen atzokoa. Ordura arte ez nuen horrelako esaldi txotxoloetan sines-tu, baina eguna bukatu zenerako... ezin nuen gehiago.

Ezkerreko hankaz jaiki nintzela esan daiteke. Goiz goizetik istilua izan nuen emaztearekin. Honek mailetak egin eta alabarekin alde egin zuen "UTZ GAITZAZU BAKEAN" oihu-

katuz atea bortizki ixten zuen bitartean. Lanean ere gauzak ezin okerrago zihoazen: duela aste batzuk entregatu behar nuen informea amaitu gabe... lana pilatua... Iritsi bezain laster zuzendariak deitu ninduen, gainera.

A ver ze esango didan orain honek (...) emazteak bazkaria jarria utzi du, ala ez... bestela... entsalada eta kito (...) beroa egiten du hemen (...) aiton zahar hau ez al da isilduko... hiztun halakoa (...) entsaladan letxuga, tomatea (...) ni lanetik botatzea ere, a zer inozoa, faltan botako nau eta (...) ateratzeko esan dit... bai... ez...beno banoa (...) a zer freskura hemen (...) ke morro, ez zuen lotsarik... ni ez nintzela "gai" lan horretarako (...) Benga! (...)

Eguerdirako etxean nintzen, ofizinako gauzez betetako kartoizko kaxa bat gainean neramala.

Gehiago geratzen zitzaidan hala ere.

...

Gaur goizean, posta jasotzera joan eta... bankuko gutun bat aurkitu dut nire izenean, aspalditik fakturak ordaindu gabe daudela eta etxea kendu beharko didatela esanez.

-Baina zer egin dut nik hau merezi izateko? -galdetu dut ozenki airean.

Isiltasunak erantzun dit.

Balkoira atera eta barandilaren gainera igo naiz. Behera begiratu eta hanketatik dardara bat igo zait gorputz osora.

Behin eta berriz errepikatzen nion neure buruari nahikoa zela, gelditu egin behar nuela...

Begiak itxi... arnasa ondo hartu... eta...

...

Iluntasuna

...

-Jurgi! Jurgi! -garrasi bat.

-Zer! -erantzun dut.

-Jurgi! Mesedez anbulantzia! -ama zen. Gaur gurera bisi-tan etortzekoa zena. Baina zergatik ari zen garrasika?

Begiak ireki ditut eta ama ikusi dut negarrez. Baina zergatik?

-Ama ez egin negar -erregutu diot.

-Jurgi! Jurgi, ez!

Ez dit entzuten, zergatik?

Ingurura begiratu eta nire burua ikusi dut, lurrean, odol putzu batez inguratutik. Ama negarrez, denak begira...

Amarengana hurbildu nahi dut, baina gero eta urrunago nago. Norbaitek bizkarretik eusten dit eta berarekin narama. Damu naiz.

Egun txoro batengatik ilusio malko bat, euforia irribarre bat, plazer dardara bat... pikutara bota ditut. Dena alferrik bizi izan banu bezala.

Damu naiz, benetan damu naiz, baina beranduegi da.

...

...iluntasuna.



Herri kirolak

Ikastolen elkarteak egin duen ibilbidea jarraituz, Haurtzaro ikastolak ere antzeko bidea jorratu du euskal jolas, joko eta kirolak gure ikasleen artean landuta.

Izan ere, garrantzi handia eman baitiogu belaunaldi gazteek kultur ondarearen zati diren tradizio eta ohiturak ezagutzeari. Eskolak eta hezkuntza-programek eginkizun hau bermatu beharra dutela uste dugu, alde batetik herrien aniztasuna errespetatuz eta, bestetik, ondarea ezagutu, baloratu eta errespetua erakutsiz.

Jolasek, jokoek eta kirolek gizartean duten jatorria ikasleari ulertarazteko, hasiera batean Ikaspilota izeneko proiektuari ekin genion eta ondoren Xiba izenarekin ikastolen elkarteak antolatutako hainbat eta hainbat jaialditan parte hartu dugu azken urteetan.

Ikuspegi honen barruan ulertu behar dira, herri kirolen txapelketak. Kirol batek eskatzen duen gaitasun fisikoari tradizioaren kontzeptua erantsiaz ikasleengan gure joko, jolas eta kirolei buruzko zaletasuna sortu nahi dugu, gure kultur ondarearen zati garrantzitsu bat bezala onartu eta baloratu dezaten.

Honetan saiatu gara Errenteriako lehen saioan eta honetan saiaturako gara Villabonan egingo dugun jaialdian. Sokatira, indiaka, egur pila, txingak, txikorta, toka eta dantza izango dira jolasak. DBH 3. mailako ikasleak, partaideak. Ilusioa, giroa eta ahalegina jarriko dituzte hau guztia festa handia bihurtzeko.



Oiartzoko ikasleak, NGS enpresan

Azaroaren 19an, Oiartzoko Batxilergo ikastolako marrazketa teknikoko ikasleek irteera bat egin zuten NGS enpresara. NGS enpresa garrantzitsua da Europar informatika arloko periferikoak ekoizten, baita kontsumoko elektronikan ere.

Ikasleek bisita gidatu bat egin zuten enpresaren sailetatik:

- Logistika saila:
 - Produktuen banaketa
 - Biltegi robotizatua
- I+D+i saila:
 - Produktuaren sorrera
 - Produktuaren diseinua
- Marketing eta komertzial saila:
 - Publizitatea eta komunikazio korporatiboa
 - Babesen kudeaketa
 - Bezeroen kudeaketa komertziala

Honela, bisita honen bidez, ikasleek aukera izan zuten informatika arloko enpresa garrantzitsua batek nola lan egiten duen ezagutzeko, produktu berriak diseinatzetik hasi eta produktora nahiz komertzializatzera eraman arte.





Oiartzoko ikasleen txangoa: Errioxa-Atapuerca

Aurtengo ikasturteari hasiera egokia emateko eta, lehenengo aldiz Oiartzoko ikastolaren historia laburrean, ikasle guztiekin bi eguneko irteera egin dugu Errioxa eta Burgoseko lurraldeetara urriaren hasieran. Txangoak bi helburu nagusi zituen: ikasleen arteko harremanak sortu (berrien artean) edo sendotzea eta ikastolan lantzen diren zenbait gai osatzea.

Bigarren helburu hori betetzearren, gure ustez interes berezia duten bisitaleku batzuk aukeratu ditugu: Naiara, Suso eta Yusoko monastegiak, eta Atapuercako aztarnategiak. Horrela, Euskararen, Artearen, Historiaren, Gaztelaniaren eta Biologia-Geologiaren ikuspegietatik oso garrantzitsuak eta mundu guztian ezagunak diren guneak ezagutu ahal izan dituzte gure ikasleek.

Bestalde, beren arteko harremanak sendotzeko ere balio izan dutelakoan gaude: ostatuan gauean elkarrekin egindako parrandatxoak kurtsoa beste umore batekin hasteko bidea ematen du.

Noski, beti bezala, zoriona erabatekoa izan ez dadin, itzultzean, lan batzuk egin behar izan dituzte gai batzuetako irakasleek aginduta.



Teknologia arloko lanak ikusgai

Ikasleengan Youtube bezalako teknologiek erakarpena sortzen zuenaz ohartu ginen iazko urtean. Hala, teknologia arloan egindako hainbat proiektu bertan zintzilikatzea proposatu eta azkar asko onartu zuten ikasleek ere.

Bideoak <http://www.youtube.com/user/haur-tzarotek> helbidean ikusgai daude. Aurren-aurrenekoek 200 ikustalditik gora izan dituzte jada.

Idea honen baliagarritasuna kontuan hartuta, Ikastolen Elkarteko irakasleentzako teknologia web orriarekin ere loturak sortu dira eta horrela, gai-nontzeko ikastoletako eredu bihurtu da.



EUSKARAZ BIZI HAURTZARO IKASTOLAN

LEHENENGO KANPAINA: IDAZKETA

Ikasturte berria bide sendoa hartzen ari da eta horrekin batera baita gure bide-lagun den Euskaraz bizi ekimena ere. Lehenengo kanpaina jadanik burutu dugu, azaroaren 10etik 25era bitartean, hain zuzen. Kanpaina horren helburua IDAZKETA lantzea izan zen. Horretarako gure eguneroko lanean ipuinak, narrazioak... txertatu genituen eta amaieran, kidetze saioak egin genituen lanak nahiz esperientziak elkarrekin trukatzeko.

Hau guztia "Guk euskaraz" abesti ezagunak girotu zuen, eta hamabostaldi horretan ikastolako doinu eta letra izan zen.

ESKUTTUN

Haurtzaro ikastolako DBHko ikasleok badugu Euskara Elkartea azken bost urte hauetan, *Eskuttun*. Eta ikasturte honetan hogeik ikasle ariko gara bertan lanean: Eneko Iparragirre, Aroia Altuna, Haizea Saez de Eguilaz, Izar Aizpuru, Uxue Barrenetxea, Jara Garzia, Aintzane Toledo, Mikel Aranburu, Peio Kazabon, Amaia Ostolaiz, Ziortza Salaberria, Olaia Sanchez, Ugaitz Susperregi, Ander Aranburu, Ainhoa Berasarte, Aritz Iparragirre, Lierni Tello, Garoa Arbelaiz, Iraitx Sanchez eta Izaro Toledo.

Esku bete lan izango dugu Eskuttuneko kideok ikasleen artean euskararen erabilera sendotzeko. Urteroko programari jarraituz, Euskaraz Bizi proiektuan parte hartuko dugu eta ikastolak antolatzen dituen ekitaldi eta ospakizun guztietan (San Tomas feria, Olentzero, Inauteriak, Santa Ageda, San Nikolas...) euskararen presentzia ziurtatzen ahaleginduko gara.

Gainera ikasleen arteko kidetze saioak antolatuko ditugu: jolasak, kirol lehiaketak, ipuin kontaketak, antzerki emanaldiak...

Horiekin guztiekin batera, euskarazko paisaia zaintzen ahaleginduko gara. Horretarako *Euskara hobean* izeneko egitasmoaren bidez, egitura traketak zuzentzeko esaldiak aukeratu, hobetu eta txoko jakinetan zintzilikatuko ditugu.

Euskararen alde lan egin nahi duen edonork atek zabalik aurkituko ditu Eskuttunen! Animatu!



Aurten zikloka hartu ditugun konpromisoak hauek dira:

LHko 1. ziklokoek: Euskara maite dugulako, inguruko guztiekin euskaraz hitz egingo dugu.

LHko 2. ziklokoek: Euskal kulturen oinarrituko gara jolasteko, ondo pasatzeko, hitz egiteko, erakusteko... beti ere euskara zuzena erabiliz. Eta euskaraz ez diren jolasak ere, euskaratzen saiatuko gara denon artean.

LHko 3. ziklokoek: Euskara eguneroko bizitzan erabiliko dugu, ahal dugun txukunen hitz egingo dugu, batez ere, ikastetxe guztietan. Nire lehenengo hitza euskaraz izango da, elkar animatuz.

DBHko 1. ziklokoek: Lehen hitza euskaraz egingo dugu, euskaldunak bultzatuz. Euskaraz bizi, jolastu, hitz egingo dugu, euskararekin ongi pasa, disfrutatu eta gozatuko dugu, euskara zaindiko dugu, bai euskarari aldarrikatuz.

DBHko 2. ziklokoek: Euskara zabalduko dugu munduko txoko guztietara.



Goizean goiz Eskutuneko kideek hasiera eman zioten Euskararen egunari.



Ondoren ikasleek konpromisoak hartu zituzten eta jai-giroan konpartitu zituzten.



Arratsaldean Argitxo etorri zen Haur Hezkuntzakoekin bere urtebetetze eguna ospatzera.





GAZTE FOROA

GAZTE FORUKUA AL ZA, EDOTA IZAN NAHI AL ZU?

Gazte forukuk hasi ga lanin. Iraillin kotxe pedaluk in genittun, urrian sukaldaritza tallerra, azaruan pelikula emanalduyak, abendun play station txapelketa ta bigarren eskuko jostailluen salmenta (atetzen den dirua Bussulo herrira, Etiopiara bialiko da).

Ekintza asko ttugu itteko pentsatuk, "zaragozano parke de atraccionesea". Aste buru pasa, Arcachoneko aquaparkea, kontzertuk, eskiatzea...

Goatu gabonak arte ikastolako sarreran elkartzen gala asteazkenero 15:15 aldea, ta gabonak ondoren Elizalde herri eskolan izango gala.

Gonbidatuk zozte nahi zutenin tortzeko.

Gazte bezela ta adin tartia kontun hartuz gure kide Urtz agurtu nahi genun ez baitu euki gazte forun parte hartzeko aukerik. Muxu bat.

Bueno besteik gabe gora gazte forua!!!!!!



KUADRILLATEGI

Aupa gaztiak!

Hemen gaude berriz e, Kuadrillategiko begiralik, ikasurte berriyan berri emateko. 72 gaztek osatzen dute aurtengo kuadrilla handiya, gehienak berriyak, ta daoneko battugu ideia batzuk urte earra pasatzeko!

Giro ona donian, arazuak re ez dia arazo. Argiya juten bada, kandelak piztu. Ping-pong-ak hankak falta battu, azpiyan mahaiak jarri. Ta ondoko gela okupatua dolako 60 pertsona gela bakarrian eon ber badugu, abesten hasi. Holakuk re gertatzen dia tarteka, ta hauxe ateatzen da:

***Txantxibiri, Txantxibiri gabiltzanian
Kuadrillategiko lokalian,
60 gazte jolasian
gela baten barruan.***

***Batzuk jolasten, bestik kantatzen,
eta bestiak hizketan...***

***Nola demontre konpontzen ziren
gela baten barruan?!***



***Jotzen, jotzen, tinbalan antzeko gauza batian,
"Está muy bien" saten dute monitoriak.***

***"Cuando vamos a Ochandiano a pasar el asteburu,
ime cago en la mar!
Tomaremos Coca-colas"
tabernatxo batian!***

Doinua aski ezauna da. Ta beno, masaje tailerra, ping-pong txapelketa, bolitakin llaberuak, gela margo-tu, Zestoako irteera, taluk... in ta geo, urte zaharreko afaya in ta urte berriyai ekintza berriyak eskatzia besteik etzaigu falta! Eurraaaa!!



AGURRIK EZ, ESKERRIK ASKO BAI GOTZON GARATE IDAZLEA GOGOAN

Hiruhilabete honen hasieran Gotzon Garate idazleak utzi gintuen betiko. Eta zergatik eskaini tartetxoa *Txinparten*? Bada gure ikastolara, DBH 4. mailako ikasleengana, urte askotan etorri izan delako, zeukan guztia eskaintzera. Eta baita eman ere!

Izugarrizko poza sentitzen zuen gaztetxoengana hurbiltzen zenean. Eta jartzen zuen ilusioa eta indarra, berriz, neurtezina. Inguruko guztiei bizi-poza barreiatzeko ahalmen ikaragarria zuen.

Ikustekoak ziren gure ikasleen aurpegiak Gotzon bere abenturak kontatzen hasten zenean eta nobelak idazteko ideiak nondik ateratzen zituen esplikatzeko zienean. Izan ere, munduko ibiltaria baitzen eta izaten baitzuen zer kontatua. Orain Goizuetan gertatutakoa, Indian biziutakoa edo New Yorken ikusitakoa. Kontakizuna, kontakizunaren atzetik. Beti hizketa goxoan eta gure ikasleak erne hari begira txundituta.

Gotzonekin saioa bukatuta horrelako komentarioak eta galderak egiten zituzten gure ikasleek: "jo, zer

suertia, zenbat bidaiatu dun; zenbat hizkuntza dakizkin; ze guai den; nei holako attona bat izatea gustatuko like; zenbat lan egin dun euskararen alde, ez yo trajiak peatzen; ze memoriya dun, galdera indako guztiyon izenak esaten zittun; eta Bilbotik autobusin etorri da?; beste batin etorriko al da?; zer da jesuita?..."

Urteak joan, urteak etorri, ikasle ugari izan dira Gotzon gertutik ezagutzeko aukera izan dutenak. Gonbidatu ere urtero gonbidatzen zituen Bilbora bisita egin ziezaioten. Eta jakin badakigu, ikasle batzuek, ikastolan sortutako harremanetik, jarraitu izan dutela Gotzonekin harremanetan.

Orain, utzi gaituenez, hor dugu pena gurekin. Baina, bestalde, poza ere bai, hainbeste oartzuarrek gertutik ezagutzeko aukera izan genuelako eta halako harreman gozoari elkarrekin eutsi geniolako. MILA ESKER GOTZON ETA BETI IZANGO DUZU LEKU BAT EZAGUTU ZAITUGUNON BIHOTZETAN.



VII. NAZIO MINTEGIA

“Gorputz heziketa norabide berri batean, gaitasunen bidean”



Urtero egiten dugun bezala, Euskal Herriko ikastolen elkarteko Xiba proiektuak “Gorputz Heziketa norabide berri batean, gaitasunen bidean” lemapean nazio mintegia antolatu zuen asteartean, azaroak 25, Oiartzungo Haurtzaro ikastolan arratsaldeko seietan.

Zuen prentsan zabalduko duzuelakoan, hemen dituzue mintegiko aurkezpen eta eztabaiden ondorio batzuk. Aldez aurretik zuen parte hartzea eskertu nahi dugu, aurrera daramagun proiektu eta gogoetarako ezinbestekotzat jotzen baitugu.

Nazio mintegia garrantzitsutzat jotzen dugu Euskal Herriko Hezkuntza Sistema ezberdinetan lanean ari diren Gorputz Heziketako irakasle guztientzat. Xiba proiektuak arlo hau bete-betean landu eta Euskal herri osoan hedatua dagoen proiektua denez, elkarlan tresna hau antolatzeko aukera izan du, bai irakas-

leak eta baita proiektua bera aberasteko ere.

Europa eta mundu mailako Hezkuntza Sistemak azkenaldian asko aldatzen ari dira, helburuak oinarri ziren sistematik gaitasunetan oinarritzen den Hezkuntza Sistema baterantz baitoaz. Euskal Curriculumak ere norabide berbera hartu du eta ondorioz, guk ere, VII. Nazio mintegian hezkuntza sistemak gaitasunetan oinarrituz hartu duen bide berriaren inguruan eta Gorputz Heziketak bertan duen eta izan beharko lukeen lekuari buruz gogoeta egin dugu.

Gaian sakondu ahal izateko, mintegian gaitasunetan oinarrituriko hezkuntzan aditua, Lovaina Berriko unibertsitateko irakaslea eta BIEF bulegoko kidea den Xavier Roegiers izan dugu.

Hasieran Xavier Roegiersek gaitasunetan oinarrituriko hezkuntza sistema bat zertan oinarritzen den



azaltzeaz gain, gure arloak, Gorputz Heziketak, gaitasunen bidean hartu beharreko norabidea ere aipatu du. Hemen dituzue berak aipaturiko hainbat harribitxi:

“Gaur egun munduan ditugun Hezkuntza Sistema gehienak politikoak dira eta interes ekonomikoen mesedetara dira diseinatuak”

“Hezkuntza Sistema hauek, normalean, 2 edo 3 pertsonen soilik diseinatzen dituzte. Ez da jendartearen, hezkuntza sistema osatzen duten eragile guztien (ikasleen, gurasoen, profesionalen) parte hartzea bultzatzen, bermatzen”

“Gaitasunetan oinarritzen den hezkuntzak haur, ume eta gazteen garapenera osoenaren alde egin behar du. Hezkuntza Sistema osatzen duten eragile gehienon adostasuna eta parte hartzea bultzatu behar du. Zer nolako ikasleak nahi ditugun denon artean adostu eta perfil honen arabera Hezkuntza Sistema diseinatu”

“Haur, ume eta gazteen garapenerako Gorputz Heziketa ezinbesteko da eta gaur egungo Hezkuntza Sistema gehienetan duena baino leku handiagoa aldarrikatu behar da. Borroka honetan asko duzue egiteko, behetik gora asko egin baitateke”.

Xavier Roegiersen aurkezpena amaitzearekin batera, guztion parte hartze-ko aukera zabaldu dugu galdera eta erantzunen txandarekin eta ondorioen bildumarekin:

Gaur egun Gorputz Heziketako irakaslea irla batean dago, egoera txarrean. Ikastolan bertan eta hezkuntza sistema osoan zehar gure arloari garrantzi txikia ematen zaio.

Gaitasunen bide berri honetan gure arloak izugarritzko garrantzia hartuko du, benetako egoeretan, bizipenetan lan egin beharrek gure arloari garrantzi berezia ematen baitio.

Gure arloaz eztabaidatzeko aprobetxatu behar dugu, ahal dugun eztabaida zabalena zabaldu eta ahal

dugun irakasle gehienon adostasun zabalena lortzeko. Denok norabide berean jarri behar dugu.

Gure arloa haur, ume eta gazteen, jendartearen garapenerako ezinbestekoa dela erakutsi behar dugu. Gorputz heziketa ikusmolde hezitzaile batekin landu behar dugu; hau da, pertsonaren garapen integrala, bere ingurune natural, sozial eta kulturalarekin oreka batean.

Jolas, joko eta kirolak helburu izatetik tresna izatera pasa behar ditugu: Ikasleak euren emozioak kudeatzeko gai izan daitezten, elkarren arteko ekintza motorraren bidez komunikazio asertiboa erabiltzeko gai izan daitezten, ludikotasuna zer den bizi, sentitu eta eguneroko bizitzara transferi dezaten, jolasa, jokoa eta kirola kulturaren oinarri direla eta jolas, joko eta kirolak gabe kulturarik ez dagoela ohar daitezten, osasuna osotasunean uler dezaten, lantzen diren gaitasun eta trebetasunak bizitzarako izan daitezten eta ez ez kirolen mesederako...

Norabide berri honetan, arlo honetan ari garen hezitzaileon elkarlana, kooperazioa, sarearen beharra aipatu da. Mintegiak sortzeko premia, etengabeko formazioa, norbera, dagoen lekutik eta egoeratik modu indibidualean eta modu kolektiboan eragiten hasteko premia...

Ondorio hauek ikusi eta aztertuz, EHIKtik behar hauei erantzuteko eginbeharra eta bide berri batzuk martxan jartzeko ardura dugu.



Hona astearteko nazio mintegiaren aurkezpen labur bat.



IKASTOLAKO GARBITZAILEAK

Ikastolako bizitzan ikasleek, irakasleek gain, beste zaintzaile-hezitzaile batzuk ere, garbitzaileak, inguruan dituzte egunero-egunero. Azkeneko Txinpart honetan ikastolako garbitzaileei egindako galderak erantzun dizkigute.

Zein da zuen eginkizuna?

Ikastola ahalik eta txukun eta ongien garbitzea. Geletan zerbait hondatuta edota zerbait puskatua bada, berriz, arduradunari adieraztea. Gure artean badaude hogeita hamar urte garbitzaile lanetan ari direnak eta urte mordo horietan denetik ikusi dugu. Konponketa asko egin dira, gela berriak... eta guztiontzat erosotasun gehiago lortu da.

Nola antolatzen zarete?

Zortzi garbitzaile gaude eta ikastola 8 zatitan banatuta daukagu eta bakoitzak bere txoko edo zatia du eta hori garbitzen du egunero. Bakoitzak, gutxi gorabehera, hamar gela ditugu lau ordutan txukuntzeko.

Zuen lanaren alderdi positiboak?

Badakigu egunero non eta zer egin behar dugun, baita noiz hasi eta noiz bukatuko dugun ere. Ez hori bakarrik, gehienak ikastolako guraso ohiak gara eta irakasle eta bertako langileekin hizketalditxoak egiteko aukera ere badugu. Bestalde, lanpostu finkoa daukagu eta herrian dagoen ikastola batean lan egiten dugu, herriko jendearekin.

Eta zailenak, neketsuenak?

Eguraldiaren arabera: euriarekin lan gehiago izaten da. Baita haurrak plastilinarekin, kolarekin eta erre-rotulagailuekin ibiltzen direnean ere. Bestalde, hainbat eremutan, haur-eskolan adibidez, garbiketa zehatzagoa egin behar da, txoko guztiak garbi-garbi utzi behar baitira.

Zertan aldatu da urte hauetan zuen lana?

Orain dela 30 urtetik hona asko aldatu da eta, jakina, onerako. Gaur egun garbiketako produktuak, fregona eta mopa industrialak, karroak eta batez ere igogailua eta geure aldagelak izatea abantaila handiak dira. Bestalde, Ikastola handituz doa urtez urte eta, ondorioz, gela gehiago daude garbitzeko.

Ezkerretik hasita: Pakita Mitxelena, Mertxe Rueda, Maria Jesus Etxebeste, M. Luisa Agirretxe, Kontxi Etxebeste, Itziar Aristizabal, Arritxu Maritxalar, Maria Jesus Arocena, Izar Lekuona eta Mailu Gonzalez.





Haur eta gazte literaturako Euskadi saria Pello Añorga oiartzuarrarentzat

Pello Añorgak (Oiartzun, Gipuzkoa, 1956) irabazi du Euskadi literatura saria, haur eta gazte literatura-ren arloan, *Jenio gaiztoa* narrazioarekin. Aizkorri argitaletxearekin kaleratu zuen lan hori Añorgak, iaz, Jokin Mitxelenak ilustratuta. Epaimahaiak aditzera eman du egileak «irakurlearen barruraino» heltzen asmatu duela kontakizun «xume» horren bitartez.

Añorgaren lanak udan gurasoeekin hondartzara doan neskato baten istorioa kontatzen du. Bertan, lehen-biziko aldiz aurre egin behar die itsasoko olatuei. Epaimahaiak «hunkigarritzat» jo du ipuina, batez ere «narrazioaren izaera dialogikoak irakurketa anitzak egitea ahalbidetzen duelako».

Kontakizuna bizitzaren inguruko metaforaz josita dago. «Idazleak imajinario xume bezain sendo bat eraikitzen du itsasoaren eta neskatoaren inguruan», Nerea Alzola epaimahaiko buruak azaldu zuenez.

Idazle gisa erakutsi duen abileziagatik saritu du Añorga epaimahaiak. Izan ere, oiartzuarrak *Jenio gaiztoa* irakurtzeko, kontatzeko eta gogoan gordezko istorio aparta bihurtzen asmatu du: «Idazketarako aukeratzen dituen hitz jokoak, errepikapenak eta ahazko kontagintzaren tradizioetik jasotako teknikak erabat egokiak dira».

Pello Añorga Haurtzaro ikastolako irakasle ohia da. Oso gustura gogoratzen ditu irakasle lanetan aritu-

tako urte haiek. Orduan hasi zen idazten. Ikasleekin batera. Ederki akordatzen da LH 2. mailako ikasleekin idatzitako "Top kapitainaren abenturak". Garai hartan Karlos Aizpurua ikaslea zen eta idazteko abentura horretan parte hartu zuen, Pellok adierazi duenez. "Ikasleekin zoratu egiten ginen idazteko garaian" dio Pellok. Izan ere, garai hartan ikasleekin batera idazten zuen: ikasleak idazten hasi, ideiak eman eta ondoren Pellok jarraitu.

Horrela sortu omen zen "Pottoko", Pelloren lehen liburua. Duela 25 urte. Orduan LH 5. mailako hizkuntzaren errefortzuko irakaslea zen. Taldean ba omen zegoen neska potola xamarra, konplejoz josia. Horrela pentsatu zuen pertsonaia sortzea, baina ipuinekoa mutikoa izatea erabaki zuen. Orduan sortu zitzaion idazteko grina. Garai haietan apenas zegoen haur literaturarik. Asko zegoen eskaintzeko eta bide horri eustea erabaki zuen Pellok. Ikastola utzi eta idazteari, ipuinak kontatzeari... ekin zion.

Bere liburu guztiak Jokin Mitxelenak ilustratzen ditu. Hau ere Haurtzaro ikastolako ikasle ohia du. Makena bat marrazki egindakoa gure ikastolan!

Haurtzaro ikastolako irakaslea izan zen Pellorentzat eta Jokin Mitxelena ilustratzailearentzat gure zorionik beroenak Ikastolako partaide guztien izenean: ikasleak, gurasoak eta lankideak!





Haurtzaro Ikastolak lehendakaria aldatu du aurtengo ikasturtean

Denok dakigun bezala ikastolak duela hamarkada batzuk guraso eta herritar euskaltzale sutsuek sortutako erakundeak dira. Haurtzaro Ikastolaren kasuan ere horrela gertatu izan da. Duela 41 urte Oiartzungo hainbat familia bildu ziren euskara, hezkuntza euskalduna eta Euskal Herriko kultura bultzatu nahian eta horretarako ikastola abian jarri zuten.

Urte hauetan guztietan gurasoen parte hartzea ezinbestekoa izan da proiektu hau aurrera atera ahal izateko. Eta gurasoen partaidetza ziurtatuko duen organoak antolatu izan dira bertan. Kontseilu Errektorea dugu Haurtzaro Ikastolako organo gorena Batzar Nagusiaren ondoren. Partaideak langileak eta gurasoak dira. Guztien ordezkari nagusia lehendakaria dugu, eta bera da hain zuzen ere, ikastolako ordezkari garrantzitsuenak.

Haurtzaro Ikastolako lehendakariaren kargua Oiartzungo guraso hauek bete izan dute:

- Julian Bergaretxe: 1967-1976
- Roman Irigoien: 1976-1978
- Juanito Iñarra: 1978-1982
- Martxel Ansa: 1982-1985
- Jesus Mari San Roman: 1985-1987
- Juaninazio Ansa: 1987-1993
- Iñaki Portugal: 1993-1995
- Angel Bergaretxe: 1995-1997
- Jokin Garzia: 1997-2001
- Arantza Manterola: 2001-2008
- Iñaki Irastorza: 2008-

Aurtengo ikasturtean Arantza Manterola gurasoak bere kargua utzi eta Iñaki Irastorzak hartu du. Hori dela eta, Arantza eta Iñakirekin bildu gara eta honako galderei erantzun diete:

Arantza, azkeneko zazpi urteetan Haurtzaro Ikastolako lehendakari izan zara. Esan iezaguzu zazpi urte hauetan Haurtzaro Ikastolak egin duen ibilbidea, izan ere proiektu asko bideratu baitira urte hauetan.

2001ean Haurtzarok publikazio garaiko matrikulazio jaitsierari buelta ematen hasia zuen. Partzuergoa eta Oiartzo sortuak. Ikastola indartuko zela aurreikusten genuen, baina beste alde batetik proiektuaren sendotze baten beharra ere susmatzen genuen. Zazpi urte oso intentsuak izan dira, eta fronte bati baino gehiagori heldu nahi izan diogu. Labur bilduta

hauek izango lirateke garai honetan gauzatu diren batzuk:

- Espazio fisikoa beharrei egokitu:
 - Gela berriak eraiki, terrazako erdialdean eta alboan
 - Jantokia handitu
 - Igogailua jarri
 - Eraikin berria egiteko hainbat gestio egin: proposamenak, alegazioak...
- Egonkortasun ekonomikoa:
 - Oiartzungo Udalarekin hitzarmena sinatu da. 2003ko hauteskundeen ondoren suertatuko egoerari aurre egin zitzaion, eta ikastolaren eta udalaren arteko harremana normalizatzea lortu genuen.
 - Diru iturri berriak bilatu:
 - Txinparten publizitatea
 - Xanistebenetako taberna
 - KMK 06 antolatzeke izendapena lortu eta jaia antolatu
 - Funtzionamenduari dagokionez:
 - Gurasoen parte hartzea antolatu, gelako guraso ordezkarien figura martxan jarri.
 - Gai pedagogikoak Kontseilu Errektoretik atera eta Hezkuntza Batzordea organo independente gisa martxan jarri.
 - Araudiak sakon ordenatu dira:
 - Estatutuak egokitu dira: Ikastolaren printzipio nagusiak estatutuetan jaso dira eta, bestetik, bazkide ez aktiboen figura garatu da.
 - Hezkuntza Proiektua osatu eta eguneratu da.
 - Ikasleen araudia onartu: Eskubideak eta betebeharrak eta disziplina-araubidea.
 - Funtzionamenduko araudia bildu eta eguneratu.
 - Inprobisazioa eta unean uneko erabakia hartzea baztertu da eta funtzionamenduko protokoloak onartzeko ohitura indartu da. Besteen artean langileak hautatzeko erabiltzen den protokoloa aipatuko nuke, oso zehatza baita.
 - Jarraipen batzordeak martxan jarri: obrak, inbertsioak, diru-kontuak...
 - Arlo pedagogikoan, ikastola pilotu proiektu hauetan: IKT, Hizkuntza proiektuan, IKASYS.



- Ikastolen kolektiboko organoetan, GIE eta Partaiden, parte hartzea berreskuratu.
- Partzuergoaren eta ikastolaren arteko egoera juridikoa argitu eta egokitu.
- Oiartzoko proiektua sendotu. Errektore Kontseiluan parte hartu eta bultzatu.
- Elkarbizikidetzaren Plana.

Helburua bete dela uste dut, ikastola herri mailan eta herritik kanpora referente bat da. Haurtzaro ikastola sendo bat da, matrikulazioa gora doa, baina ezin dugu lotan gelditu. Azkeneko erronka Plan Estrategikoari ekitea izan da. Askotan horrelako hausnarketak une larrietan, arazoak daudenean egiten dira. Gurean momentu on hau aprobetxatu nahi izan dugu, denen artean, guraso eta langile, etorkizuneko lehen-tasunak adosteko. Hausnarketa horren ondoren proiektua are eta gehiago sendotzea espero dugu, eta partaideen arteko kohesioa indartuko dela.

Zer irabazi duzu ikastolako lehendakari zazpi urtez izan ondoren?

Ni euskalduna naiz, eta niretzako ikastolak bakarrik edo ia bakarrik dira euskaraz irakatsiz gain, herritar euskaldunak hezten dituztenak. Ikastolen mugimendua asko miresten dudana proiektua da. Niretzako poza handia izan da proiektu horretan partaide izatea eta ekarpena egitea. Nire aurrekoek egindako lanari esker nire alaba gure gustuko hezkuntza ereduaren hezteko aukera izan dugu. Ondorengoek aukera berak izan ditzaten lana egin behar nuela uste nuen. Beraz, zer irabazi dudana? Sinesten dudana proiektua bizirik eta indartua ikustea.

Gainera, nire alabaren irakuskuntza oso hurbiletik jarraitzeko aukera ere eman dit.

Bestalde, aukera ederra izan dut Oiartzungo herria barne-barnetik ezagutzeko. Lagun pila bat egin ditut. Esan behar dut herritarren kariñoa eta hurbiltasuna sentitu dudala. Haurtzaro Ikastola lehendakaria izatea bada zer bait Oiartzuneko!

Arantza, ikastolako lehendakari zinela Gipuzkoako ikastolen elkarteko lehendakaria izendatu zintuzten. Nola uztartu dituzu bi lan horiek? GIEko erronkak zeintzuk dira? Haurtzaron egindako lana baliagarria suertatu al zaizu? Zertan?

Nahiko ondo moldatu naiz. GIEko kargua 2007ko apirilean hartu nuen. Garai horretan, Haurtzarok bukatu berri zuen KMK antolaketa, eta ikastolaren barruan ez zegoen arreta berezirik eskatzen zuen gairik. Hori alde batetik, eta, bestetik, bi erakundee-tako kideen malgutasuna, GIE nirekin batera Egiturapen Batzordea osatzen duten kideen laguntza,

eta, teknologia berriei esker, lortu dut denboraldi honetan bi ardurak uztartzea.

GIEren momentu honetako erronkak bi eratakoak dira. Bat, arlo pedagogikoan. GIEk ardura handiko proiektuak kudeatzen ditu. Ikastola guztientzako ikasmateriala eta berrikuntza eta ikerketa proiektuen garapena bere ardurapean dago. Ohikoa du ikasmaterialeko proiektuak garatzea. Orain material hori Euskal Curriculumera egokitu behar da. Hori nahikoa ez balitz, eskuartearen proiektu berri bat dugu: IKASYS proiektuaren garapena. IKASYS egitasmoa erronka handia da, eta horregatik lana eta inplikazio handia eskatzen digu. Gogoratu nahi dut IKASYS proiektuko koordinatzaile orokorra Haurtzaroko irakasle bat dela, eta Haurtzaro hasiera-hasieratik izan dela eta dela proiektuen honetan ikastola pilotu.



Bestea, kudeaketa eta funtzionamendu mailakoa: egituraketa berria garatzea. Ikastolak **Orain eta Gero** dokumentuan jasotzen den egitura kolektiboa gauzatzea lehentasuneko erronka da.

Haurtzaron egindako lana oso baliagarria izan zait. Haurtzaron hartu dudana esperientzia handia izan da. Batetik, ikastolako barne funtzionamendua ondo eza-gutzea, lan taldea gidatzen aritu izana, negozioetan ibilitakoa, ikastolako kudeaketan parte hartua eta gainera KMK antolatu berri-berria.

Zer utzi duzue bazterrean ikastolako lehendakari izateko?

Nik ez dut ezer bazterrean utzi. Denbora librekoa nuen eta hori da ikastolari eskaini diodana. Normaltasuneko egoeretan lehendakari izatea konpatiblea da familiaren arduratzearekin. Nahiz eta kontra pentsa daitekeen, Garaziren irakaskuntzaren jarraipen oso zuzena egin dut denboraldi honetan.



Zein da une honetan Haurtzaro ikastolak daukan ondasunik preziatuena?

Bere jendea, barrukoak eta kanpokoak. Barruan, langile prestuak eta proiektuan sinesten dutenak, guraso inplikatuak, ikasle aktiboak. Kanpokoak diot, baina nolabait deitzeagatik, ikasle ohi, guraso ohi, langile ohi eta, oro har, herritarrek, ikastolari laguntzeko beti prest.

Denon metaketa da Haurtzaro, eta jende horren guztiaren elkarlana izan da eta izango da etorkizunean Haurtzaroren altxor handiena.

Eta aurrera begira zeintzuk izango dira Haurtzaro Ikastolaren erronkarik handienak?

Nire ustez ikastolak bi erronka handi ditu eta biei heldu die. Bata, duen nortasuna eta ezaugarri eustea. Haurtzaro ikastola mota bat da: herritarra, aintzadaria, berritzailea, parte-hartzaile, era askotakoa, irekia, kolektiboaren bultzatzailea, ikuspegi nazionalekoa, integratzailea... Duen arrakasta eta babesa ezaugarri horietan datza. Hala ere, ezaugarri horien inguruan hausnarketa egitea komeni da, alderdi ahulak eta indartsuak aztertu eta aurrera begira ildo argi batzuk komunitate osoaren artean adostu. Horretan ari gara. Plan Estrategiko bat finkatzeko prozesu batean murgilduta dago ikastola. Oso prozesu interesgarria suertatzen ari zaigu. Ikasturte honen amaierako txosten bat izango dugu.

Beste erronka, espazio fisikoari etorkizuneko erantzun bat ematea. Erakin berria behar zuela esaten nuen kargua 2001ean hartu nuenean, eta zoritxarrez oraindik ez dugu lortu. Orduan aurreikuspena bazen, orain ezinbesteko beharra da. Zazpi urte hauetan ez gara geldirik egon. Egin behar diren proposamen edo alegazioak egin ditugu, oraingo legealdian eta aurrekoan. Ordezko arauen errebisioaren tramitazioan ikastolak une bakoitzean dagokiona egin du bere interesak defenditzeko. Bitartean, eta paraleluki, etxe barruan, beharrei aurrera egiteko tarteko obrak egin dira: terrazako gela berriak eta jangela handitzea. Momentu honetan, ordezko arauen ibilbi-

dea ikusita, badirudi ikastolaren nahia gauzatze-ko aukera handiak daudela.

Arantza Manterolak zazpi urte hauetan egindako lan eskerdari jarraipena eman nahi dio Iñaki Irastorzak. Lehendakari berriari, berriz, honako galdera hauek egin dizkiogu.

Zerk bultzatu zaitu ikastolako lehendakari izatera?

Neronek ere ez dakit garbi, egia esan, ez dut sekula pentsatu. Seguraski ez da arrazoi bakarra izango, baizik eta arrazoi txiki pila bat. Gu, bost senideak, Haurtzaroko ikasle ohiak gara, eta beti pentsatu izan dut ikaragarritzko zortea izan genuela. Oso oroitzapen onak dauzkatz, eta orduko gizartea eta baliabideak kontuan hartzen badi-tugu batzuetan sinesgaitza iruditzen zait ikastola jaso genuen heziketa jaso izana.

Garai hartan guraso batzuek oso apustu zaila egin zuten, amets bat zeukaten eta amets horretan benetan sinetsi zuten. Ikastola herriko familiek sortutakoa da, gure aurrekoek, eta guk beti gurea bezala sentitu izan dugu, etxekoa. Betidanik sumatu izan dut halako zor bat bai berekin eta bai ikastolarekin ere. Beharbada, zor hori kitatzen laguntzeko modu bat izan daiteke.

Aurten guk ere -iaz Haurtzarok bezelaxe- bete ditugu dagoeneko 40 urte, zentzu pixka bat sartzen has-teko garaia nonbait, gure bi semeak bertan dabil-tza ikasten, nire lagun eta umetako ikaskide gehienak hor inguruan dabil-tza, orduko gurasoen ametsari jarraipena emateko aukera daukagu... Ez dakit, izan daite-ke orain arte jasotako guztiaren zatitxo bat itzul-tzen hasteko garaia.

Zer utzi duzue bazterrerara ikastolako lehendakari izateko?

Nik oraingoz utzi, ezer gutxi, familikoekin pasatzeko denboraren zati bat -haiei lapurtutakoa erabiltzen baitut-, eta hartu, berriz, buruhauste mordoxka bat.

Aurtengoarekin bost ikasturte daramazkit Kontseilu Errektoreko partaide bezala, eta hirugarrena Gipuzkoako Ikastolen Elkartean Haurtzaroko ordezkari bezala; beraz, aldaketa ez da hainbestekoa. Beharbada, aldaketarik handiena norberak barruan sumatu dezakeen arduran egon daiteke. Dena den, askotan gehiegi pertsonalizatzeko joera izaten dugu. Ikastola-ko historian atzera begiratzean lehendakarien izenak aipatzen dira maiz, baina lehendakaria garai jakin bateko jende multzo handi baten ordezkari formala besterik ez da, atzetik lagun anonimo asko daude (guraso, langile, laguntzaile...), eta horiek dira benetan ikastola aurrera atera dutenak. Berekin gaude zorretan.

Zein da une honetan Haurtzaro ikastolak daukan ondasunik preziatuena?

Dudarik gabe bere giza taldea; bere bazkideak -bai langile eta bai gurasoak-, eta, nola ez, bere ikasleak.



Haurtzaroko langileek ondo erakutsia dute bere balioa eta profesionaltasuna, eta horren erakusle dira urtez urte gure ikasleek lortzen dituzten emaitza onak. Baina emaitzak aipatzerakoan ezin dugu emaitza akademikoetara soilik mugatu, gure ikasleek jasotzen dituzten baloreak, bizitzaren aurrean erakusten duten jarrera, gizarteko arlo ezberdinetan duten parte hartzea... horiek denak kontuan hartu behar genituzke. Balore horien zati handi bat ikastolan jasotzen dute, eta bestea, berriz, etxean eta familian, beraz hezitzaile guztien arteko (guraso, irakasle, langile ez dozentek...) elkar-ulertze ona izatea ezinbestekoa da, etxetik jasotzen dutena eta ikastolan jasotzen dutena elkarren osagarriak izan daitezen.

Askotan ikastolako eguneroko jardunean gurasoen presentzia langileentzat akuilu gertatzen da eta langileen jardun etengabeko eta indartsu hori bera da gurasoen parte-hartzea bultzatzen duena. Bestalde, gure herrian ikastola ikusteko daukagun modua ezin da ahaztu. Esango nuke familiaren jarraipen naturala bezala ikusten dugula ikastola Oiarzunen, berez, sano-sano. Bere haurtxoaren heziketarako ikastola aukeratzen duen gurasoak ez du ikastetxe soil bat aukeratzen, bertaratzean familia handi bat aurkitzen du, bertako parte izatearen sentipena oso errotua daukagu, eta sentipen horren indarrak asko laguntzen du.

Ikasleak, berriz, ikastolaren izate beraren ardatz eta arrazoi nagusia dira, eta ez dugu ahaztu behar etorkizunean ikastolako guraso, langile, irakasle eta kudeatzaile izango direla, beraz berak dira –inor izatekotan–, dudarik gabe, gure ondasun preziatuena.

Eta aurrera begira zeintzuk izango dira Haurtzaro ikastolaren erronkarik handienak?

Horixe da ba denon artean orain erabaki behar duguna! Aurten Haurtzaron gure Plan Estrategikoa diseinatzeko ari gara, datozen lauzpabost urteetarako ikastolaren norabidea zehaztuko duena.

Garbi dago orain artean Haurtzarok lanak ondo egin dituela; ez Oiarzunen bakarrik, herritik kanpora ere ospe handia eta izen ona lortu ditu, ikastolen munduan erreferente bihurtu da, bertako zenbait profesional ikastolen mugimenduko egitasmo ugariatako arduradun edo kolaboratzaile dira, Haurtzaro proiektu aintzindari askotan partaidea da... oso momentu gozoa bizi du gure ikastolak.

Lana ondo egin izanak ikastola asko haztea eragin du, eta ondorioz, leku premia handia daukagu. Gai hau ez da berria; 2001ean, Arantza lehendakari izendatu zutenean, berak aipatzen zuen erronka nagusietako bat zela eraikin berria egitea. Ordutik hona ahalegin handiak egin dira, zenbait aurrerapen lortu dira, baina –arrazoi batzuk tarteko– ez guk nahi eta Oiarzun bezalako herri batek behar dituen adinak.



Bitartean, behin-behineko soluzioak gauzatu behar izan dira, eta horrela ikastolako terrazan 9 gela berri eraiki dira urte hauetan.

Garbi dago eraikin berriarena dela gure ikastolan hamarkada honetako erronkarik nagusietako bat. Ea hamarkada bukatu aurretik lanak hasita ikusten ditugun!

Baina aurrera begira jarri behar dugu, eta espazio fisikoarenaz gain, badaude heldu beharreko beste erronka batzuk. Gure ikastolan bi esparru bereiztuko nituzke; lehenengoa "esparru pedagogiko edo profesionala" izango litzateke eta bestea "esparru teorikoa edo proiektuarena", bere osotasunean hartuta. Jakina, biek elkarrekin uztartuta joan behar dute, baina banago "proiektuaren" esparru horretan lan gehixeago egin behar ez ote dugun...

Arlo curricularra, edukiak, metodologia etab. oso zehaztuta eta oso landuta dauzkate profesionalek, eta esparru hori oso sendo dago. Bigarren esparruan sendotu beharreko zenbait aspektu ikusten ditut; kooperatibako bazkide izatearen kontzientzia indartzea (bai langile eta bai gurasoen aldetik), gurasoen arteko transmisioa ziurtatzeko modu eraginkor bat aurkitzea, denok parte hartzeko bideak erraztea, ikastolen egituraketa berrian gure lekua ziurtatzea...

Erronka asko izan ditzakegu, baina denon artean erabaki beharko ditugu lehentasunak eta gai bakoitzaren garrantzia. Horretarakoxe gabiltza Plan Estrategikoren diseinuan. Etapaz etapako irakasleak, zuzendaritza taldea, langile ez dozentek, geletako guraso ordezkariak eta Kontseilu Errektoreko kideak, denok gabiltza lan horretan. Hortik ateratzen dena izango da gure etorkizun hurbila baldintzatuko duena; beraz txukun egiten saiatu beharko dugu!

Hauxe izan da guztia. Haurtzaro ikastolaren izenean, milesker, Arantza!, kastolari egin diozun ekarpenarengatik. Inakiri, berriz, animo eta aurrera!



NOLA DU IZENA NESKA BAKOITZAK



Begira, begira zer nolako neska-mutiko ederrak etorri zaizkigun hiru urteko geletara!



HH 1 A

Suhar Aristegi · June Inda · Alex Garcia
Unax Aduriz · Anje Irastorza
Alain Peña · Garazi Etxaniz · Maren Aginaga
Aimar Sagasti · Aimar Galardi

Ane Galardi · Julen Zelaieran
Oihane Mancheño · Julen Garmendia
June Ibarguen · Eneko Etxebeste
Asier Pardavila · Ekhi Etxeberria
Elhorri Tolosa · Udane Barquin · Enaitz Ilarregi

HH 1 B

Udane Lekuona · Udane Zulaika
Haitz Aramburu · Zumai Mitxelena
Elene Etxegarai · Uxue Etxebeste
Iban Hernandez · Ioritz Nuñez

Unax Landa · Hodei Rio · Urki Mitxelena
Ane Garmendia · Nahia Mitxelena
Oier Zabaleta · Ane Otegi · Xabi Arrizabalaga

Iker Ubiria · Aintzane Flamarique · Maialen
Leiza · Enara Jauregi · Jon Hernandez



HH 1 C

Ur Aristizabal · Ekain Mitxelena
Xabat Eskudero · Lide Romero
Mattin Etxebeste · Ekain Sagarna
Eneko Hernandez · Lierni Lasheras
Araitz Ortega · Unax Lanz

Udane Guridi · Oihane Retegi · Maialen Carrizo
Lur Lopez · Negu Etxezarreta
Nora Salaberria · Julen Larburu
Ane Chanca · Iker Dacosta





Mendiburu kalea, 2 · © 943 49 47 19



**Biok
ETXEGINTZA S.L.**

Karaitza etxea · Garmendi bidea, 3 · 20180 OIARTZUN
© 943 492 501 · Fax 943 492 501

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
© 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
© 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · © 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · © / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

© 943 260 065

Polígono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
© 943 491 375 · Fax 943 493 462

